PASAIAKO UDALA
www.pasaia.net IFK/CIF P2006900A
Donibane kalea, 19, 20110 Pasaia
Tel: 943 344034 / Faxa: 943 515447
Kudeaketa
943 345364
kudeaketa@pasaia.net

EUSKALAKARIAK, GAZTEEN HIZKUNTZA MOTIBAZIOA SUSTATZEKO EGITASMOA.

****

PROYECTO DE MOTIVACIÓN LINGÜÍSTICA DEL ALUMNADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL BÁSICA DE PASAIA.

OINARRI TEKNIKOAK

PLIEGOS TÉCNICOS

EUSKALAKARIAK, *PASAIAKO OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN HIZKUNTZA MOTIBAZIOA SUSTATZEKO EGITASMOA.*	*PROYECTO DE MOTIVACIÓN LINGÜÍSTICA DEL ALUMNADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL BÁSICA DE PASAIA.*

KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Pasaiako Euskalakariak egitasmoa kudeatzea da.

Egitasmoaren **oinarriak** ondokoak izango dira:

- Pasaiako Oinarrizko Lanbide Heziketa ikastetxeko ikasleak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea.
- Euskara erabiltzeko joera lantzea, hizkuntzarekiko jarrerak, balioak eta arau sozialak jorratuz.
- Euskara ikasi eta hobetzea abiapuntu izanik, ikasleen motibazioa eta erabilera sustatzea.
- Era berean, proiektuak bere helburuen artean ikasleekin genero ikuspegitik lan egitea jasoko du, harreman berdinzaleak sustatzeko kontzeptu eta baloreetan oinarrituko da eta genero, sexu-identitate edota sexu-orientazioagatiko diskriminazioak gaitzestea sustatuko du.

Jardueraren **ezaugarriak** eta esleipendunaren **eginkizunak** honako hauek izango dira:

- Hartzaileak Pasaiako OLHko lehen eta bigarren mailako ikasleak izango dira.
- Lehen mailako ikasleekin, ikasturte guztian zehar, hamabostean behin ordu eta erdiko saio bat egingo da, guztira 14 saio.
- Bigarren mailako ikasleekin, ikasturte guztian zehar, hamabostean behin ordu eta erdiko saio bat egingo da, guztira 12 saio.

OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato consiste en la gestión del programa Euskalakariak de Pasaia.

Las bases del proyecto son las siguientes:

- Acercar al euskera y a la cultura vasca al alumnado del Centro de Formación Profesional Básica de Pasaia.
- Trabajar la tendencia al uso del euskera a través de actitudes, valores y normas sociales.
- Teniendo como punto de partida el aprendizaje y la mejora del euskera, impulsar la motivación y el uso del alumnado.
- Igualmente, el proyecto plasmará entre sus objetivos que el trabajo se lleve a cabo teniendo en cuenta la perspectiva de género, y se base en conceptos y valores que promuevan las relaciones igualitarias, además de que se impulse el rechazo de la discriminación por razones de identidad sexual u orientación sexual.

Las características de la actividad y las funciones del/ de la adjudicatario/a son las siguientes:

- El colectivo destinatario es el alumnado de primer y segundo curso de Formación Profesional Básica.
- Con el alumnado de primer curso, a lo largo de todo el curso, se realizará una sesión quincenal de hora y media, con un total de 14 sesiones.
- Con el alumnado de segundo, a lo largo de todo el curso, se realizará una sesión quincenal de hora y media, con un total de 12

sesiones.

- Talde bakoitzarekin bi hezitzaile arituko dira saioa dinamizatzen.
- Cada grupo contará con dos educadores/as que dinamizarán la sesión.

- Modu dinamiko eta erakargarrian, talde dinamika eta jolas kooperatiboen bitartez egingo da lan, gazteen parte-hartzea sustatuz eta euskara mundua ezagutzeko bidea eskainiz.
- De forma dinámica y atractiva, se trabajará a través de dinámicas de grupo y juegos cooperativos, fomentando la participación de los y las jóvenes y facilitándoles el conocimiento del mundo del euskera.

- Ikasleen lanbidearekin loturiko gaiak landuko dituzte euskaraz; baita, euskararen historia eta euskal kultura, lan mundura sartzeko bideak eta herriko eragileen ezagutza ere, besteak beste.
- Se desarrollarán en euskera temas relacionados con la profesión del alumnado; así como, entre otros, la historia del euskera y la cultura vasca, y los distintos modos para la inserción en el mundo laboral. Asimismo, tendrán conocimiento de quiénes son los/las agentes del municipio.

- Ekintza osagarriak antolatzea: pertsona ezagunen bisitak, kaleko ekimenetan parte hartzeko jarduerak, komunitatean parte hartzeko ikasleek ekintza bereziak antolatzea...
- Organización de actividades complementarias: visitas de personas conocidas, actividades de participación en iniciativas de calle, organización de actividades específicas por parte del alumnado para participar en la comunidad...

Esleipendunaren **betebeharrak** honako hauek izango dira:

Las obligaciones de la empresa adjudicataria serán las siguientes:

- Enpresa esleipendunak saioak prestatu eta dinamizatu beharko ditu
- La empresa adjudicataria preparará y dinamizará las sesiones.

- Enpresa esleipendunak egitasmoaren jarraipena egin eta balorazio txostena aurkeztu beharko du urtero.
- La empresa adjudicataria realizará un seguimiento del proyecto y deberá presentar un informe de valoración anual.

- Enpresa esleipenduna Pasaiako OLH ikastetxearekin harremanetan eta Pasaiako Udalaren Euskara Sailarekin koordinatuta egon beharko du.
- La empresa adjudicataria deberá mantener relación con el Centro de Formación Profesional Básica de Pasaia y actuará en coordinación con el Departamento de Euskara del Ayuntamiento de Pasaia.

- Enpresa esleipendunak, Udalak eskatzen dizkion argibide guztiak emango ditu, bai forma dokumentalean baita beharrezko bilera eta harremanen bitartez ere.
- La empresa adjudicataria facilitará cuantas aclaraciones le sean solicitadas por el Ayuntamiento, tanto de forma documental como a través de las reuniones y contactos necesarios.

- Hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea dokumentuetan, publizitatean, irudietan, eta kontratuaren ondorioz sortzen den gainerako materialean; emakumeen diskriminazioa areagotzen duen irudirik ez erabiltzea eta berdintasuna, aniztasuna erantzunkidetasuna eta kideko balioak sustatzea; eta generoaren araberako ikuspegia kontuan hartzea kontratuaren ondorioz sortzen diren txostenetan, idazkietan, datuetan, estatistiketan...
- Deberá utilizarse un lenguaje no sexista e inclusivo en la documentación, publicidad, imágenes y demás material resultante del contrato. Se evitará el uso de imágenes que redunden en la discriminación de la mujer y se potenciarán valores como la igualdad, la diversidad y la corresponsabilidad. Así mismo, se tendrá en cuenta la visión de género en los informes, escritos, recopilación de datos y estadísticas que resulten de la ejecución del contrato.

- Saioen dinamizatzaileak ordezkatu behar izanez gero, berezkoenaren pareko prestakuntza maila eta esperientzia izan beharko dute ordezkoek, eta egiaztatu egin beharko da hori jatorrizko ziurtagiriak aurkeztuta; betiere, ordezkoak lanean hasi aurretik.

- En aquellos casos en los que haya que sustituir a las/los dinamizadores/as, el personal sustituto deberá tener la misma formación y experiencia que el/la titular, y antes de comenzar con su cometido, deberá aportar certificados originales para su verificación.